

Laguntza Goiztiarra Nafarroan

ABIAPUNTUKO AGIRIA



Nafarroako
Gobernua

Laguntza Goiztiarra Nafarroan

ABIAPUNTUKO AGIRIA

Iruña, 2004ko ekainaren 15a

Aurkibidea

Aurkezpena / 5

1 Laguntza Goiztiarraren aurrekariak eta bilakaera / 7

Sarrera: erreferentzia nagusiak

Laguntza Goiztiarraren definizioa

Helburuak

Funtsa eta oinarriak

Esku-hartze mailak

2 Laguntza Goiztiarra Nafarroan / 19

Testuinguru orokorra

Etorkizuna

3 Esku-hartze eredua Laguntza Goiztiarrean / 23

Programan sartzea

Hasiera

Diagnostikoa

Esku-hartzea

Igorpena

Historia bakarra

4 Laguntza Goiztiarreko programa / 31

Laguntza Goiztiarra koordinatzeko gunea

Definizioa

Osaketa

Koordinatzailearen zereginak

Balorazio taldearen zereginak

Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroak

(HGLGZ)

Definizioa

Osaketa

Zereginak

Metodologia

Baldintza materialak:

Baldintza fisikoak eta hornidura

Esparruak eta espazioak

Teknologia eta oinarriko tresnak

Antolamendua eta funtzionamendua

Ordutegiak

Beste esku-hartze batzuk

Ospitaleratzeak

Etxeko laguntza

Beste jarduera osagarri batzuk

Prestakuntza

Ikerketa

Kalitatea

5 Koordinazio sistemak eta mailak / 45

Diziplinen artekoak

Barrengoak

Kanpokoak

Erakundeen artekoak

6 Parte hartzeko bideak / 49

Barne araubideko erregelamendua

Parte hartzeko kontseilua

Iradokizunen eta kexen posta-kutxa

A Eranskinak / 53

Parte hartzeko prozedura

Etorkizuneko ekinbideak

Arautegia

Arrisku-faktore biologikoak eta sozialak

Nahasteak eta aldaketak garapenean

Bibliografia

Aurkezpena

Nafarroako Gobernuak, eskumen guztia baitu gizarte ongizatean, babes politika zenbait ezarriz, laguntza berezia ematen die gizatalde zabalei: zahar, baztertu, familia, ezindu, arazo sozialak dituzten haur eta nerabe, etorkin, etabarrei.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren Departamentuak, aipatu gizataldeen beharrei erantzuteko, hainbat plan eratu ditu, denak osotasunaren ikuspegitik.

Arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planak, Familiari laguntzeko planak, Ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko plan integralak (bukatzeko ari dira) ikuspegi askotatik, haurren garpena eta haien laguntza jorratzen dute.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko organo kudeatzailea Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutua da. Bere eskumenen artean dago, besteak beste, garpenez arazoren duten edo izateko arriskuan dauden haurrendako

laguntza goiztiarra, ikuspegi berri baten beharrez dagoena, izan dituen aldaketan ondorioz. Beraz, Nafarroan, Laguntza Goiztiarraren beste eredu bat ezarri behar da.

Eredu hori gauzatuko da Haurren Garapenera eta Laguntza Goiztiarrari buruzko abiapuntuko agiriaren bidez, non Nafarroako Laguntza Goiztiarraren lerro filosofiko nagusiak definitu eta ezarriko baitira.

Abiapuntuko agirian zehaztuko dira, halaber, Laguntza Goiztiarreko programaren antolamendurako jarraibideak.

Agiriak izan nahi du, orobat, Nafarroako Laguntza Goiztiarraren arauak erregulatzeko eta gartzeko oinarriaren ardatz teknikoa. Aipatu arauak 2004an indarra hartuko duen Foru Dekretu batean emanen dira.

Azkenik, Nafarroako Laguntza Goiztiarreko Programa etengabe hobetzea du helburu.



Laguntza Goiztiarraren
aurrekariak eta bilakaera

Sarrera: erreferentzia nagusiak

Laguntza Goiztiarra eremu eztabaidagarria izan da eta 80etako erdira arte ez da adostasun pixka bat lortu.

Eremu franko berria da, baina agudo hazi da azken 50 urteetan.

Laguntza goiztiarra 60etan jaio zen; alabaina, 70ak arte ez zen erabili estimulazio goiztiarraren terminoa, kontzeptu berezi gisa esku-hartzearen esparruan.

Erresuma Batuko Hezkuntzako idazkariak Warnok txostena eskatu zien aditu batzuei 1974an, eta 1978an argitaratu zen. Eragin izugarria izan zuen Europa guztiko Hezkuntza Berezian eta haurren tratamenduan sartutako berrikuntzetan.

Aholku berezia eman zuen: txiki-txikitan arazoak zituzten haurrekin lehenbailehen landu behar ziren zenbait jokabide, berez lortuko ez zituztenak zailtasun haiek zirela medio.

Urte askoan errehabilitazio programek haurrak zituzten jomuga, beste inor ez. 80etako erdian aipatu zen lehenik gurasoen garrantzia estimulazio programetan.

Onartu zen, halaber, lehen urteetako estimulazio gabeziaren ondorioak nolabait ere leundu zitezkeela Laguntza Goiztiarraren bidez.

Ezgaitasunen bat zuten umeez gain, arrisku biologikoan zein sozialean zeudenak sartu ziren programetan.

Jada haurrak ez ziren helburu bakar: haien bizi guztia jorratu behar zen, haien garapeneko testuinguruak.

90etan iritzi orokorra da eskuhartze programek arrakasta izatez gero, haurra baino haruntzago begiratu behar dela.

Profesionalen esku-hartzeko modua ere aldatu da: bakarka eta umeekin bakarrekin aritzetik, koordinaziora eta tratamenduetan diziplinarreko ikuspegira pasatu dira.

Beraz, bilakaera bat izan da:

- Lehen, errehabilitazioa zen ardatza. Orain, prestatzea trebetasun batzuk ikastea da, ohiko bizimodua egin ahal izateko.
- Lehen, anbulatorioetan eta espezialitateetan tratatzen zen afera. Orain, haurren ingurunea lantzen da.
- Lehen, laguntza sistema bereziak sortzen ziren. Orain, inguruko baliabide naturalak erabiltzen dira: gurasoak, senideak, aiton-amonak, eskolaurreko ikaskideak, etab.

Bada, eredu psiko-ekologikora goaz, non kontuan hartzen baitira giroa, umeen ezaugarriak eta haien arteko harremanak.

Bestalde, Espainian, 90etan, Laguntza Goiztiarreko zerbitzuen egoera, ondoko hau zen:

- Laguntza Goiztiarraren erantzukizuna osasunak, hezkuntzak eta gizarte zerbitzuek zuten eta ez zegoen garbi eskumenen banaketa haien artean. Autonomi erkidegoetako desberdintasunak handiak ziren.
- Desberdintasunak zeuden, orobat, bai eredu teorikoetan, bai esku-hartzekoetan.
- Afera tratatzeko hainbat espezialitate zeuden; asko ziren tituluak aditu taldeetan eta zerbitzuetan.
- Zerbitzuetan eredu mistoa gailendu zen: pribatu ugari, arlo publikoak lagunduta.

Horregatik eta irizpideak batzeko, 2000 Ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko eta prebentzio-rako Errege Patronatuak "Laguntza Goiztiarraren Liburu Zuria" argitaratu zuen. Agiri horretan bildu dira Autonomi Erkidegoetako adituen gogoetak eta babesa eman diote Adimen-atzerapena duten pertsonen aldeko Espainiako Konfederazioak eta ONCE fundazioak, besteak beste. Helburutzat du arloko arazoak lantzeko arauak ezartzea, baita Estatu guztian planifikazio egokia ere.

Liburu Zurian jasotako oinarriak dira Abiapuntuko agiri honen mugarriak; liburu hori egokitu nahi zaio Nafarroako errealitateari.

Laguntza Goiztiarraren definizioa

Laguntza Goiztiarra da 0-6 urteko haur, familia eta inguruan esku-hartzea eta helburua du lehenbailehen erantzutea garapen nahasteak dituzten edo izateko arriskuan dauden haurren beharrei, aldi batekoei zein iraunkorrei. Esku-hartze horiek umea bere osotasunean hartuko dute eta hainbat diziplinatan adituek eta berorietan dihardutenek planifikatu behar dituzte.

Laguntza Goiztiarreko esku-hartzea, 0-6 urteetan, hiru puntutan oinarritzen da: Laguntza Goiztiarreko programa berezia eta haur eskolak, biak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren menekoak, eta ikastetxeak, haurren etapan, Hezkuntza Departamentuaren menekoak.

Laguntza Goiztiarreko programa berezia, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren menekoa, Nafarroan bizi diren 0-3 urteko haurrentzat da, batez ere.

3-6 urteetan, kontuan harturik ume gehienak eskolatuak daudela, hezkuntza zerbitzuek bermatzen dute eskolan eta gizartean txertatzea, eta badituzte baliabideak haurren garapena estimulatzeko eta indartzeko, baita familiei laguntzeko ere.

Beraz, 3 urtetik gora, eskolatu gabeko haurrak sartuko dira Laguntza Goiztiarreko programa berezian. Horiei egoera ez-ohikoan daudenak gaineratuko zaizkie: ospitalean, helbide aldaketan, moldatzen ez direnak... Adituen taldeak, balorazio baten ondoren, Laguntza Goiztiarreko programa beraientzat egokia dela erabaki behar du.

Helburuak

Laguntza Goiztiarraren helburu nagusia ondoko hau da: garapen nahasteak dituzten edo izateko arriskuan dauden hurrek, haien garapena eta ongizatea indartzeko behar duten prebentzioa egin eta laguntza jaso dezatela, xehetasun biopsikosozialak kontuan harturik. Gisa horretan familian, umeak eskolan eta gizartean txertatu eta beren autonomia izatea lortuko da.

Laguntza Goiztiarreko jarduera eta esku-hartze guztiek haurraz arduratu behar dute, baita haren familiaz eta inguruaz ere.

Hortik ateratzen dira Laguntza Goiztiarraren xedeak:

- Haurraren garapen eskasien edo gabezien ondorioak apaltzea.
- Umearen garapen bidea aprobetxatu, ahal den guztia.
- Mekanismo egokiak paratzea konpentsatzeko, hesiak ezabatzeko eta behar bereziei egokitzeko.
- Nahaste batek edo arrisku handiko egoera batek eragindako ondorioak edo eskasiak saihestea edo gutxitzea.
- Haurraren eta bere familiaren beharrak eta eskakizunak bete eta erantzutea.
- Umea esku-hartzearen subjektu aktibo gisa hartzea.

Funtsa eta oinarriak

Laguntza Goiztiarra planteatzekoan, bi kontzeptu hartu behar dira kontuan: haurraren garapena eta garapenaren nahastea.

Haurraren garapena

Haurraren garapena, lehen urteetan, hainbat funtzio garrantzitsu eskuratzean datza:

- Gorputz-jarreraren kontrola
- Autonomia, mugitzerakoan
- Komunikazioa
- Hitzeko mintzaira
- Elkarreragin soziala

Bilakaera hori osoki loturik dago nerbio sistemaren helduekin eta emozioen eta adimenaren antolamenduarekin.

Haurren garapena **faktore genetikoen** eta **ingurumen-faktoreen** elkarreraginaren ondorio da:

- **Oinarri genetikoak**, bereziak pertsona bakoitzarengan; garapen ahalbide batzuk ezartzen ditu eta, orain arte, ezin ditugu aldatu.
- **Ingurumen-faktoreek** zenbait ezaugarri genetiko apaldu edo sortaraziko dituzte. Faktore horiek biologikoak, psikologikoak eta sozialak izan daitezke. Ingurumen-faktoreak dira psikologiarekin eta gizartearekin zerikusia dutenak, haurraren eta bere inguruaren arteko elkarreragina; zaintzean ematen dioten maitasuna eta egonkortasunaren ondorioz sortzen dituen lotura afektiboak; ondo-ko gauza guztiak hautematea.

Baldintza horiek funtsezkoak dira gizakiarentzat eta erabakigarriak emozioen garapenean, komunikazio funtzioetan, egokitze jokabideetan eta ikasketaren aurreko jarreretan.

Nerbio sistema lehen urteetan heltzen da eta plastizitate handia dauka eta, beraz, aiseago berreskuratu eta berrantolatzen da funtzioei eta organoei dagokienean; nekezago, ordea, ondoko urteetan.

Garapen nahasteak dituzten haurren bilakaeran zerikusi handia du arazoa noiz aurkitzen den eta Laguntza Goiztiarra noiz hasten. Bide horretan azpimarratzekoa da familiaren inplikazioa, ezinbestekoa baita elkarreragin afektiboa eta emozionala sortzeko, baita tratamenduen eragina ere.

Garapenaren nahastea

Garapenaren nahastetzat hartzen da garapen ildoan neurri handi batean desbideratzea, osasun edo harreman arazoaren ondorioz. Arazo horiek bilakaera biologiko, psikologiko eta soziala era batean baldintzatzen dute.

Laguntza Goiztiarrak kontuan hartu behar du:

- Haurraren bilakaeraren unea eta arlo guztietako beharrak, ez soilik duen eskasia edo ezgaitasuna. Umea osotasunean hartu behar du, bakoitzaren barne xehetasunak, biologikoak, psikologiko-sozialak eta hezkuntzakoak, baita pertsonen artekoak ere: ingurua, familia, eskola, kultura eta gizartea. **Horrek beti dakar esku-hartzea planifikatu beharra.**

Bilakaera uneari dagozkion gaitasunen jabe izateak baldintza onetan jarriko ditu haurrak mundua ulertzeko eta ingurune naturalari eta gizarteari egokitzeko.

- Helburua umeen garapen harmonikoa da, beren ingurunean txertaturik. Horrela errehabilitazioaz, esku-hartze psiko-sozialaz edo hezkuntzakoaz soilik arduratzen den jarrera gaindituko da.

Laguntza Goiztiarraren funtsezko kontzeptuak definiturik, aipa ditzagun euskarri dituen inspirazio iturriak:

- **Doakotasuna, guztiontzat izatea eta denek aukera berdinak edukitzea, erantzukizun publikoa:** kudeaketa mistotik ulertzen da erantzukizun publikoa, baliabide hitzartuek eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutukoek ematen baitute zerbitzua. Horrela, laguntza behar duten haurrei doakotasuna eta kalitatea ziurtatzen zaie.
- **Deszentralizazioa.** Familiaren beharren arabera, haren ondoren, etxeko laguntza barne, antolatzen da sistema. Beraz, Laguntza Goiztiarra oinarrizko osasun laguntzaren barrenean sartzen da, eskolaurreko zentrotan ondoan eta familiaren auzoan. Zerbitzuen antolaketa eta funtzionamenduaren euskarri dira familiaren bizimoduari zor zaion errespetua eta bizi-kalitatearen babesa eta sustapena.

- **Sailkapena.** Zerbitzuek jardueraren eremua mugatu behar dute, oreka eskuratzearren ondoko hauen artean: gizataldearen eta habitataren ezagupena eta haiekiko hurbiltasuna; taldeek jarduteko duten gaitasuna eta kalitatea eta zerbitzu eske nahikoa. Gisa horretan erraztuko da eratzen den erreferentzi eremuan osasun, hezkuntza edo gizarte zerbitzuak sarzea.
- **Elkarrizketa, integrazioa eta parte-hartzea.** Garapen nahastea duen haurra subjektu aktibotzat hartu behar da familian, eskolan eta gizartearen txertatzez gero. Laguntza Goiztiarrak umearen ezagupen soziala eta bere nahiak komunikatzeko eta adierazteko era ulertzea dakar. Ondorioz, elkarrizketan eta izaera diferentek onartzean oinarrituta dauden eredu koherente eta egonkorak bultzatuko dira hazteko, hezteko eta harremanak izateko.
- **Koordinazioa.** Laguntza Goiztiarreko zerbitzuei dagokie familien bizi-kalitatea erraztuko duten eta elkarren osagarri izanen diren herrietako lanak bultzatzea. Familiek aipatu ohi dute entitate edo profesionalen zerbitzu eta orientabideek bat etorri eta egoera bere osotasunean hartu behar dutela, jarduerak planteatzerakoan. Koordinazioa, zerbitzuen jarraipenarekin ere lotua dago. Nahitaez antolatu behar dira diagnostikoaren informazioaren edo eskolara eramatearen uneak. Oso komenigarria da familia bakoitzak **erreferentziako profesional** bat izatea, konfiantzakoa, zalantzak edo galderak adierazteko eta ohiko bizimodua egoki berrantolatzeke. Koordinazioaren xede nagusietako bat da agentzia, entitate edo profesional askok esku-hartzeagatik gerta daitekeen **zatiketa galaraztea**.
- **Diziplinartekotasuna eta profesionalen prestakuntza sendoa.** Diziplinartekotasunaren kontzeptua arlo zenbaiten baturaketa baino gehiago da. Laguntza Goiztiarrean diharduten profesionalen prestakuntzak diziplina bat jorratzea esan nahi du, baita gainerako guztien kontzeptu esparru bera ere, gogoeta eta talde lanaren bidez garatuko dena.

Esku-hartze mailak

Laguntza Goiztiarraren eredu biopsikosozialak haurrarekin eta familiarekin diharduten zerbitzuen koordinazioa eskatzen du, osasuna, hezkuntza eta gizarte ongizatea lortzearen.

Bada, laguntza integralean oinarritutako Laguntza Goiztiarrak osotasun baten zati izan behar du, umearen garapen egokia eta gizartean txertatzea erdiesteko.

Ikuspegi honetatik, jarduera koordinatuen arlo nagusiak dira familia, hezkuntza, osasuna eta gizartea.

Beraz, Laguntza Goiztiarreko plan integralean eta koordinatuan aurrera eraman beharreko ekintzak, esku-hartze mailen arabera elkartuko dira. Horrela, osasun eta gizarte zerbitzuek eta hezkuntzak, modu koordinatuan eta eraginkorrean, hainbat programa eta jarduera gauzatuko dituzte.

Elkarlana hiru esku-hartze mailatan banatuko dugu:

- Lehen mailako prebentzioa
- Bigarren mailako prebentzioa
- Hirugarren mailako prebentzioa

Lehen mailako prebentzioa Laguntza Goiztiarrean

Xede orokorra

Haurren garapenean eman daitezkeen gabeziak edo nahasteak galaraztea, jendartean zabalduko den PREBENTZIOAREN eta SENTSIBILIZAZIOAREN bidez.

Eskumenak

OSASUNA	GIZARTE ONGIZATEA	HEZKUNTZA	HGLGZ
Neonatologia Neuropediatria Errehabilitazio zerbitzuak Pediatria Adimen osasuna	Eskolaurreko haur eskolak Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Haurren ikastetxeak	
Genetikari buruzko aholkularitza Prebentzio planak Ohiko azterketak Haur osasuntsuaren kontrola Arrisku handiko haurren jarraipena	Familiantzako laguntzak Arrisku sozial handiko eta tratutxarreko familien jarraipena	Familiantzako laguntza	Lankidetzaren beste zerbitzuekin Informazio eta sentsibilizazio kanpainak

**Bigarren mailako
prebentzioa Laguntza
Goiztiarrean**

Xede orokorra

Lehenbailehen sumatea eta diagnostikatzea, arriskuko taldeetan atzemandako baldintzen ondorio txarrak saihesteko edo gutxitzeko.

Eskumenak

OSASUNA	GIZARTE ONGIZATEA	HEZKUNTZA	FAMILIAREN INGURUNEA	HGLGZ
Obstetrizia zerbitzuak Neonatologia zerbitzuak Neuropediatria Errehabilitazio zerbitzuak Pediatria zerbitzuak Adimen osasuneko zerbitzuak	Eskolaurreko haur eskolak Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Haur Hezkuntzako ikastetxeak Bilakaera prozesuan desbideratzeak direla-eta, arriskuan dauden haurrak atzematea	Familia hurbila	Lankidetzak, beste zerbitzuekin Informazio eta sentibilizazio kanpainak
Jaio aurreko, jaio inguruko eta jaio ondoko egoera edo baldintza arriskutsuak atzematea Informazioa eta HGLGZetara igortzea	Bilakaera prozesuan desbideratzeak direla-eta, arriskuan dauden haurrak atzematea Laguntza eskolan Familiako egoera arriskutsuak atzematea HGLGZetara igortzea	Laguntza eskolan Osasun eta gizarte zerbitzuetara igortzea eta, behar bada, HGLGZetara.	Jokabide bereziak atzematea Kontsulta pediatriarekin HGLGZetara igortzea	Elkarlana gainerako zerbitzuekin, informazio eta prestakuntza programak egiteko. Diagnostikoa

Hirugarren mailako prebentzioa Laguntza Goiztiarrean

Xede orokorra

Haurren garapenean atzemanda-ko nahasteen eta disfuntzioen ondorio txarrak ezabatu edo gutxitzea. Umeari eta haren ingurune-ari zuzendutako jarduera guztiak dira.

Eskumenak

OSASUNA	GIZARTE ONGIZATEA	HEZKUNTZA	HGLGZ
Neonatologia Neuropedriatria Ospitalean artatzea Errehabilitazio zerbitzuak	Eskolaurreko haur eskolak Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Haurren ikastetxeak	Balorazio eta laguntza zuzeneko taldeak
Haurrarekin eta familiarekin Esku-hartzea hastea Jarri harremanetan HGLGZarekin	Esku-hartzea ikastetxean HGLGZra igortzea	Esku-hartzea ikastetxean Behar bada, HGLGZetara igortzea	Bakoitzaren beharrak eta ahalbideak baloratzea Bakarkako garapena planifikatzea eta diseinatzea, haurra, familia eta ingurunea kontuan hartuz Haur bakoitzaren garapenaren jarraipena



Laguntza Goiztiarra
Nafarroan

Testuinguru orokorra

Nafarroan, 1981etik, Ezinduen Orientazio, Balorazio eta Diagnostikorako Oinarrizko Zentroak darama Laguntza Goiztiarraren Programa, zeina Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuari atxikia baitago.

Oinarrizko Zentroko Laguntza Goiztiarreko taldeak bi zeregin betetzen ditu. Batetik, ezintasunen balorazioa eta kalifikazioa eta haur bakoitzak zer motatakoa eta zer maila duen zehaztea, baita ziurtagiriak luzatzea ere. Bestetik, jende guztiarentzako Laguntza Goiztiarreko programak egitea.

Tuteraldean eta Lizarraldean, 1997tik, tratamendua behar zuten hurrek Adimen-urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkartera (ANFAS) jo dute, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako laguntza ekonomikoarekin.

Laguntza Goiztiarraren zerbitzua ikuspegi berrien arabera planifikatu eta antolatu beharrak eta urte hauetan hura gabe egon diren eskualde batzuen eskakizunak bultzatu dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua Komunitateko zerbitzua hobetu eta sendotzeko neurriak berrikusi eta egokitzea.

Lehen neurria, 2003koa, ANFASekin lankidetzak akordioa sinatzea izan zen eta horrela, berak hartu zuen laguntzaren ardura Nafarroa guztian, Iruñerrian izan ezik.

Programa Komunitate guztian zabaldu beharrak, herritar guztiarentzat berdina izan dadin, eta zerbitzua berritzeko ahaleginak, 2004an Laguntza Goiztiarreko eredu berria moldatzea ekarri dute, aldaketa eta sendotze prozesua hasteko.

Etorkizuna

Nafarroako Laguntza Goiztiarren etorkizuna zabal jorratu da agiri honetan, eta aipatu diren funtsak eta oinarriak ditu euskarri. Ardatz hauen arabera sailkatu ditzakegu:

- Laguntza Goiztiarreko programak denontzat eta doakoak izatea. Beraz, herritar guztiek aukera berdinak izanen dituzte.
- Esku-hartzeko eredu integralari jarraituz ezarriko dira Laguntza Goiztiarreko programak.
- Laguntza Goiztiarraren oinarria dira bere zerbitzu eta programen parte-hartzea eta koordinazioa. Horretarako, lankidetzaren eragin-korra ziurtatzen duten tresnak baliatuko dira.
- Parte-hartze handiagoa izateko bidea zabalduko da familiek eta komunitatearen zerbitzuek garapen nahasteak dituzten edo izateko arriskua duten haurrei laguntzerakoan.
- Laguntza Goiztiarreko hiru mailen kalitatea hobetuko da.
- Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroen (HGLGZ) taldeak antolatuko dira, diziplinartekotasunaren ikuspegiz eta etengabe prestatuz eta ebaluatuz.
- Laguntza Goiztiarreko programa, ezintasunak baloratzeko eta ziurtatzeko zerbitzuetik autonomo eta aske antolatuko da.
- Plan bat ezarriko da, agiri honen oinarrien irizpide, dokumentu eta protokoloak epe ertainean gauzatzeko.

A large, light grey number '3' is centered on the page. It has a subtle drop shadow and a slight gradient, giving it a three-dimensional appearance. The number is positioned behind the text.

Esku-hartze eredua
Laguntza Goiztiarrean

Sarrera

Esku-hartze integrala (haurra, familia, ingurunea) proposatu da, gaitasunak bultzatu, gabeziak galarazi eta gutxitu eta gizartean txertatzea erraztuko duena.

Nahitaezko baldintza da helburu berak lortzeko familiaren lankidetzeta eta osasungintzako, hezkuntzako eta gizarteko taldeen parte-hartzea.

Horren arabera, diziplinarteko profesionalen taldeek, arlo guztietan ikasten ariko direnek, prestatuko dituzte esku-hartzeak, eta xedea izanen dute haurraren garapena eta familiarena ahal den hobekiena aurrera eramatea.

Ume bati laguntza emateko prozesuak lau zutabe ditu:

1. Programan sartzea.
2. Diagnostikoa.
3. Esku-hartzea.
4. Igorpena.

Programan sartzea

Atzemate goiztiarrak ez du batere eraginik, ondoren laguntzarik eta esku-hartze egokirik ez badago.

Programan sartzeko eskabidea egin behar du familiak, profesional batek edo erakunde batek.

Familientzat kezka handiko garaia izan ohi da, ez baitakite zer etorkizun izan dezaketen haurrek.

Horregatik kontu handiz prestatu behar da familien harrera HGLGZan, zerbitzu horretan informazioa, prestakuntza, laguntza eta ziurtasuna izan dezaten ezustean etorri zaienari aurre egiteko eta seme-alaba babesteko hasiera-hasieratik.

Taldeak zehatz-mehatz prestatuko du prozedura, oinarrian harre-ra protokoloa izanen duena. Kasu bakoitzean erabakiko da zeinek hartuko duen familia, zer informazio eskatu eta zer emanen zaion. Beti adieraziko zaie Programa zer den, zer plan antolatu den haientzat, Zentroa erakutsiko zaie eta, ahal dela, beste guraso batzuk aurkeztuko zaizkie.

Beraz, familiarekiko lehen harremana bakarka eta alde zurretik prestatuko da.

Diagnostikoa

Lehen balorazioak garrantzi berezia du esku-hartze prozesuan.

Hasierako diagnostikoa erabakigarria da berehala hartu behar diren neurrientzat eta txikien eta familien etorkizunarentzat.

Diagnostikoaren hipotesi egokia egiteko hiru maila landuko dira: funtzionala, sindromei buruzkoa eta etiologikoa.

Lehen balorazioak sakon eta osotasunean aztertu behar du haurraren garapena, haren historia eta familiarena eta ingurunea.

Egokiro egiteko, balorazio taldeko profesionalen lankidetzak behar da, kasua igorri duten erakundeekiko koordinazioa eta miaketa edo azterketa osagarriak eskatu dituztenekikoa.

Hasierako balorazioan, ondoan aipatuko diren une hauek bereiziko dira: informazioa biltzea, haurraren eta ingurunearen ebaluazioa, diagnostikoaren hipotesia aurreratzea, datuak itzultzeko elkarrizketa eta esku-hartzeko proposamena.

Informazioa biltzea

Informazioaren biltzea egokia diagnostikoaren xehetasun garrantzitsuena da. Haurraren, informazio biltzetaren eta beste profesional batzuen ekarpenen bidez jasotzen da informazioa.

Lehen harremana familiarekin

Haurrarako elkarrizketak, balorazioaren tresna bikaina izateaz gain, esku-hartzearen lehen jarraitbideak ezartzen ditu.

Informazio biltzea sistematikoa

Familiarekin egiten den elkarrizketan balorazio taldeko profesionalak sistemakiki jasoko dituzte umearen eta familiarren datuak (egoera emozionala, zailtasunak, bizipenak...) kasua ulertzeko (haurraren garapena eta bilakaera unea, nahastearen arrazoiak...).

Saiatu beste profesionalak emandako informazioa berriz ere ez eskatzen.

Taldeak informazioa jasotzeko protokoloa, kasuan kasukoa, erabiliko du. Datuak "Historia Bakarrean" idatziko dira.

Beste profesionalen informazioa

Balorazio taldeko profesionalen erantzukizuna da haurra eta familia ezagutzen duten beste profesionali (pediatra, neurologoa, gizarte langilea...) informazioa eskatzea, txosten idatzien edo elkarriketen bidez.

Aldez aurretik, taldea saiatuko da familiaratik ahal duen guztia jasotzen.

Datu horiek “Historia Bakarrean” antolatuko dira.

Haurraren eta bere ingurunearen ebaluazioa

Ebaluazioa esku-hartze terapeutikotik bereizi ezinezko elementua da, esku-hartze programa bideratu, doitu eta alda dezakeena, baita haren ondorioak ere.

Eredu psikometrikoak ez dira aski haurtzaroan eta ume oso txikietan ebaluazioa egiteko. Beraz, beste tresna batzuk erabili behar dira, hala nola haurraren eta bere ingurunearen behaketa, garapen eskalak, galdeketak, elkarrizketak eta inbentario ekologikoak.

Meiselsek eta Atkins Burnettek azpimarratu dutenez, haurren ebaluazioa, etorkizunean, ondoko hauetan oinarrituko da¹:

- Ebaluazioak bilakaera globaleko eremuan oinarritu behar du.
- Ebaluazioak informazio iturri eta osagai asko ditu.

- Ebaluazioak sekuentzia bat jarraituko du; bera ez da helburua.
- Ebaluazioa haurraren eta zaintzaile nagusiaren arteko harremanetan eta eraginetan sartuko da.
- Ebaluaziorako nahitaezkoa da ohiko garapenaren jokabideak ulertzea, haurren arteko ezberdintasunez jabetzeko.
- Ebaluazioak erreparatuko die haurrak, esperientziak antolatzeko, jarraitzen duen mailari eta arauari, baita gaitasun funtzionaleri ere.
- Ebaluazioak ohartu behar du umearen gaitasunez, sendo dagoen puntuez eta gaitasun erne berriez.
- Ebaluazioan lankidetzan dihardute profesionalak eta gurasoek.
- Ebaluazioa etor litekeen esku-hartzearen lehen urratsa da.
- Haurraren bilakaeraren ebaluazioa, familian edo Laguntza Goiztiarreko Zentroan edo bietan egin beharko litzateke.

¹ Meisel eta Atkins Burnett (2000). Budeta, Cancela, M.J. “Evaluación y pruebas de evaluación infantil aplicadas a la Atención Temprana”. Manual de Atención Temprana, Pirámide, 2004.

Esku-hartzea

Aldi honen xedea da bakarkako esku-hartze eta jarraipen plan bat egin eta martxan paratzea, eta familiarekin lanean hastea.

Bakarkako esku-hartze eta jarraipen plana.

Bakarkako esku-hartze plana ebaluazioko datuen eta ondorioen arabera osatuko da. Zenbait puntu bilduko dira planean:

- Haurraren eta familiaren beharrak
- Behar dituzten laguntzak eta baliabideak
- Jarduteko lehentasunak
- Pronostikoa, epe laburrean eta ertainean
- Lan programa ere zehaztuko da, ondoko hauekin:
 - Xedek eta epeak
 - Jarduerak
 - Metodologia
 - Berrikusteko epea
 - Ebaluazio sistema
 - Familiaren parte-hartzea
 - Eskolaurreko ikastetxearen parte-hartzea
 - Profesionalen esku-hartzea

Gurasoentzako informazioa

Haurrarentzako programari eta elkarrekin egin beharreko jardueri buruzko argibideak emanen zaizkie, argi eta garbi; haien ekarpenak eta oharrak ere kontuan hartuko dira. Beraz, programa hitzartua izanen da.

Partaide sentitu behar dute, ez hartzaile soilak.

Igorpena

Umeak bilakaera ona izan eta barkarkako programaren xedeak lortzen dituenen; edo adinagatik edo bere gaitasunengatik beste zentro batera joan behar badu laguntza jasotzera, taldeak altaren proposamena eginen du eta igorpen protokoloa erantsiko dio.

Bi kasuetan, familiak taldearen (HGLGZ) informazioa izanen du eta, horretaz gain, txosten idatzi bat, non haurraren bilakaera, egungo egoera eta etorkizunean egin beharrekoak jasoko baitira.

Zerbitzu berrian beti bermatuko da lotura eta jarraipena haurrari eta familiari ematen zaion laguntzan.

Horregatik, ume batek hezkuntza sisteman sartu behar duenean, oro har hiru urte inguru dituenen, Laguntza Goiztiarreko taldeak (HGLGZk) neurriak hartuko ditu haurrari, familiari eta hezkuntzako profesionaleri etapa berria errazteko.

HGLGZko taldeak, hezkuntzako talde espezializatuarekin batera, prozedura idatziko du informazioa trukatzeko, baita familiari zerbitzu berriaren gainean informatzeko ere. Prozedura urtero berrikusi eta eguneratuko da.

Berdin jokatuko du Laguntza Goiztiarreko taldeak familiei aholkatzen dienean haurrak eskolaurreko ikastetxeetan inskribatzeko.

Eskolaurreko ikastetxeetara joaten diren ume gehienek tratamendua jasotzen dute HGLGZn. Horregatik, nahitaezkoa da bien arteko koordinazio tresnak finkatzea.

Eskolaurreko ikastetxeek on egiten diote bai gizarteratzeari, bai ikasketei, prozesu terapeutiko eta hezkuntzako indartzen baitute.

Beraz, barkarkako plana eratuko da haur bakoitzarentzat. Bertan jarduerak dibertsifikatuko dira, plana zer testuingurutan garatuko den hobekien, haren arabera (tratamendu espezializatua eta eskolako testuingurua). Familiarekin hitzartuko dira jarduerak.

HGLGZko taldeak protokolo bat diseinatuko du, igortzeko.

Historia bakarra

Umeari buruzko informazioa argi eta modu antolatuan biltzeko tresna da.

Helburua da, orobat, profesionalen diziplinarreko lana erraztea, informazio guztia eskura izan dezaten.

Argibide hauek, gutxienez, izan beharko ditu:

- Datu pertsonalak.
- Zeinek igortzen duen.
- Eskabidearen zergatikoz.
- Hasierako balorazioa.
- Bakoitzarentzako garapen plana.
- Jarraipena.
- Ebaluazioak.
- Txostenak.
- Garrantzi berezia duten gauzak edo azpimarratzekoak.

HGLGZko edozein taldekiderentzat oso kontuan hartzeko barne agiria da.

Balorazio taldea arduratuko da ongi betetzeaz eta eguneratzeaz.

A large, stylized number '4' is centered on the page. It is composed of several overlapping, semi-transparent grey shapes that create a layered, 3D effect. The number is positioned behind the text.

Laguntza Goiztiarreko programa

Aurreko ataletan islatu den bezala, Laguntza Goiztiarra antolatzeari konplexua da, jarduera eremua zabala duelako eta bertan profesional eta zerbitzu askok bat egiten dutelako.

Ekintza guztiak beharrezkoak dira, baina elkarlana eta irizpide batasuna lortuz gero soilik izanen dira eraginkorrak.

Une honetan, arrazoi historikoak eta egiturakoak direla eta, NGOik gidatu eta koordinatzen du Laguntza Goiztiarra Nafarroan, Ezinduen Oinarrizko Zentroan den Laguntza Goiztiarreko Programaren bidez.

Atal honetan erakutsiko da Laguntza Goiztiarreko taldearen antolaketa eredia, Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroen (HGLGZ) bidez, baita barneko koordinazio eredia eta komunitatearen beste baliabideen artekoa ere.

Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroek autonomiaz funtzionatuko dute, nahiz NGOiren menean egon, Balorazio Atalaren bidez, zein zuzeneko kudeaketatik, zein irabazi asmorik gabeko entitateekin eginiko hitzarmen eta egiaztapen sistemaz baliatuz. Entitate horiek Gizarte Zerbitzuen Sare Publikoa osatuko dute.

Komunitateko Laguntza Goiztiarreko Taldeak hiru unitate, elkarren arteko lotura handikoak, izanen ditu:

- a. Koordinazio Unitatea.
- b. Balorazio Unitatea.
- c. Zuzeneko Laguntzako Unitatea.

Unitateek Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroak (HGLGZ) osatuko dituzte.

Zuzeneko Laguntzako Unitatea eskualdeetako HGLGZen bidez antolatuko da.

Familiek eskuera izan behar dituzte Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroak eta lehen osasun laguntzako beste zerbitzuen (eskolaurreko haur eskolak, osasun etxeeak edo gizarte zerbitzuak) ondoan egonen dira.

HGLGZak oso espezializatuta daude Laguntza Goiztiarrean. Haurraren eta bere familiaren beharrei erantzuteko profesionalak biltzen dituzte, balorazioan eta diagnostikoan hasi eta diseinura, bakarkako programetara, bilakaeraren jarraipenera eta eskuhartzera ailegatzen direnak.

Gainontzeko beharrak betetzen dituzten kanpoko baliabideekiko koordinazioa ziurtatu behar lukete.

Zentro espezializatu gisa jardungo dute, beste profesional batzuen beharrei erantzutearren.

Profesionalek gizarte, hezkuntza edo osasun arloetako erdi edo goi mailako titulua izan beharko dute, bai eta prestakuntza berezia ere Laguntza Goiztiarrean.

Lanbide profil ugariako profesionalak dihardute Laguntza Goiztiarrean Estatu guztian, eta tokian tokiko beharren arabera hautatzen da profila.

Jarraian, Laguntza Goiztiarrean lan egin ohi duten profesionalak aipatzen dira, modu orokorrean:

- Neuropediatria – Haur neurologia
- Medikuntza-Errehabilitazioa
- Psikologia Klinikoa-Psikologia
- Pedagogia
- Psikoterapia
- Gizarte lana
- Estimulazioa
- Fisioterapia
- Psikomotritzitatea
- Logopedia
- Okupaziozko terapia

Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Koordinazio Zentroa (HGLGZ)

Definizioa

Koordinazio Zentroak, bere profesionalen bidez, komunitate guztiko Laguntza Goiztiarreko programaren jarduerak planifikatu, antolatu, banatu, jarraitu eta ebaluatuko ditu.

Bertan bilduko dira programaren eskabide guztiak, familiek egindakoak zein beste zerbitzuek, osasunekoek batez ere, igorritakoak.

Kasua zerbitzu batek igortzen duenean “Koordinazio Zentroaren igorpen orria” beteko da, horretarako propio eratua. Orri horretan idatziko dira haurraren datuak, helbidea, gurasoen telefonoa eta igortzeko arrazoia, egoki diren txostenekin batera.

Igorpen orria Koordinazio Zentrorra bidaliko da beti. Familiarekiko hitzordua kasua atzeman duen zerbitzutik egin daiteke, Koordinazio Zentroarekin hitz eginda, edo Koordinazio Zentrotik.

Osaketa

- Laguntza Goiztiarreko programaren koordinatzailea. Psikologo, pedagogoa edo psikopedagogoa izan behar du.
- Balorazio, orientazio eta jarraipen taldea. Ondoko profesionalak osatuko dute: psikologoak, pedagogoak edo psikopedagogoak, hizkuntzaren psikologoak edo logopedak, errehabilitazioko medikuak eta gizarte langileak.

Koordinatzailearen zereginak

Laguntza Goiztiarreko programaren arduradun teknikoa da.

Zeregin hauek izanen ditu:

- Laguntza Goiztiarreko programa taxutzea eta antolatzea, balorazio eta zuzeneko arretako taldeekin batera.
- Jardueren urteko planaren jarraipena eta kontrola eta urteko txostenen ebaluazioa.
- Zuzeneko arretako taldeen arteko koordinazioa bultzatzea eta bermatzea.
- Batzorde teknikoaren koordinazioa.
- Parte-hartze kontseilua(k) deitu eta zuzentzea.
- Programaren funtzionamendua ebaluatzea eta kalitatea eta hobekuntza sartzeari.
- Prestakuntza eta eguneratze zientifikoa bultzatzea eta antolatzea.
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko langileak kudeatzea.
- Indarra duen legeria betetzen dela ziurtatzea.
- Jarduera plana betetzen dela ziurtatzea.

Balorazio taldearen zereginak

- Familien harrera.
- Esku-hartze programetarako haurren eskabideak bateratzea.
- Umeen, familien eta ingurunearen beharrak ebaluatzea.
- Esku-hartzea behar duten haurrentzako txostena idaztea.
- Ebaluazio txostenak bidaltzea haurrak igorri dituen zentrori.
- Familiei informazioa eta laguntza ematea eta haiekin lankidetzan aritzea, beharrezkoa denean.
- Guraso taldeak bultzatu eta gidatzea; prestatzen eta seme-alabenganako harremanetan laguntzea.
- Esku-hartu behar den kasuetan komunitateko HGLGZetara igortzea. Lehentasuna da etxebizitzatik hurbil egotea.
- HGLGZetako profesionalekin jardutea bakoitzarentzako esku-hartze plana eratzen eta jarraitzen.
- Baliabideen sarearekiko koordinazioa ezartzea; informazioa trukatzeko eta laguntza-zerbitzu gisa aritzea.
- Osasun, gizarte eta hezkuntza zerbitzuak koordinatzea, esku-hartzea egokia izan dadin.
- HGLGZetako taldeen jardueren jarraipena eta kontrola ezartzea.
- Ebaluazioa eta laguntza duen

populazioaren zerrenda bate-ratua taxutzea.

- Kasuan-kasuan, igorpena proposatzea, ezintasun ziurtagiria emateko.
- Familien laguntzak tramitatzea.
- Bere jarduera eremuarekin lotuta dauden gaietan prestatzea eta eguneratzea.
- Ikertzea eta guraso eta profesionalei laguntzeko gidak egitea.
- HGLGZetako profesionalekin batera jardueren urteko plana eta txostena osatzea.

Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroak

Definizioa

HGLGZetan hurrei, familiei eta ingurukoei zuzeneko arreta ematen zaie eta bakoitzarentzako esku-hartze plana eramaten da aurrera.

Talde finkoz edo ibiltariz osatuak daude, dituzten erabiltzaileen araberak.

Osaketa

Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroak eskualdeka antolatuak daude. Lurraldearen banaketak bat etorri behar du, ahal dela, osasun eremuekin (Osasun Etxeak) eta gizarte zerbitzuekin (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak):

- Iruñerriko unitatea.
- Tuteraldeko unitatea.
- Lizarraldeko unitatea.
- Tafallaldeko unitatea.
- Zangozaldeko unitatea.
- Altsasualdeko unitatea.
- Iparraldeko unitatea

Iruñerriko HGLGZa Laguntza Goiztiarreko Oinarrizko Zentroaren (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua) taldean diharduten profesionalak osatuko dute, eta beraiek izanen dira arduradunak. Talde hori Koordinazio Zentroaren toki berean egonen da.

Gainerako eskualdeetako HGLGZak entitate batek kudeatuko ditu, NGOik egiaztapena eta hitzarmena egin ondoren. Teknikoki eta organikoki Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Koordinazio Zentroaren menean egonen dira.

HGLGZ bakoitzeko profesionalen kopurua, zaintzen den populazioaren, eskabideen eta atxikita dituen eginkizunen araberakoa izanen da. Ahal dela, taldeetako profesionalen egonkortasuna eta jarraipena ziurtatuko dira.

Profesionalek erdi mailako titulua izanen dute, zentzu-mugimenen garapenean edo mugimenduaren edo hizkuntzaren garapenean, edo hirurak batera, baita prestakuntza eta esperientzia ere Laguntza Goiztiarrean.

Terapeuta-tutorea²

Bereziki interesgarria da HGLGZ-etan terapeuta-tutorea izatea.

Profesional hori haur bakoitzarentzat izendatuko da, HGLGZra ailegatzen denetik.

Espezialistek haurrarekin eta familiarekin egiten dituzten jarduerak koordinatuko ditu.

Familiarentzako erreferente hurbilena da eta haurren eta familiaren beharrak atzeman beharko ditu.

Umearen tratamendu eta esku-hartzeak sortutako nahasmendua argitzen ahaleginduko da.

Diziplinarteko lana errazten du.

Salbuespenak salbuespen, zentzu-mugimenezko estimulazioa egiten duen profesionala da tutorea, tratamendu horrek osotasuna hartzen baitu kontuan. Gainera, Laguntza Goiztiarreko bakarkako esku-hartze programaren ardatza da eta izaera pedagogiko nabarmena du.

Zereginak

- Ebaluazio taldearekin lankidetzan aritzea diagnostikoan.
- Bakarkako programak taxutzea.
- Programak gauzatu eta ebaluatzea.
- Familiei laguntzea eta haiek orientatzea, haurrarekin dituzten lan jardunak erraztuz.
- Laguntza Goiztiarrari buruzko agiri teknikoak egitea.
- Materialen eta jostailuen gida eguneratuak gurasoei ematea.
- Koordinazio sistematikoa eskolaurreko haur eskolekin.
- Osasun zerbitzu orokorreko eta espezializatuekiko koordinazioa.
- Etengabeko prestakuntzako eta eguneratze zientifikoko jardueretan parte hartzea.
- Ikerketa proiektuetan parte hartzea.
- Balorazio taldearekin batera, jardueren urteko plana eta txostena osatzea.

² Iturria: García Sánchez, F.A. (2002). Atención Temprana: Elementos para el desarrollo de un modelo Integral de intervención. Bordón aldizkaria 54 (1), 39-52.

Metodologia

Laguntza Goiztiarreko Programaren metodologiak ondoko hauek ditu oinarri: talde-lana, profesionalen etengabeko prestakuntza eta jarduera, programa eta taldeen funtzionamenduaren ebaluazioa.

Taldeek diziplinarreko ikuspegia izanen dute eta pixkana-pixkana, profesionalak arlo guztietan prestatzen saiatuko dira.

Diziplinartekotasuna ez da espezialitate honen eta haren batuketara, talde bateko diziplina eta espezialitateetatik datorren informazioa biltzeko eta sintetizatzeko gaitasuna baizik.

Bilketa hori ez da erraza, taldeko profesional bakoitzak besteen espezialitateei buruzko oinarrizko ezagupenak izatea eskatzen baitu.

Taldeek eta profesionalek batak besteari lagunduko diote eta lan-kidetzarako eta esperientzien trukatetarako kultura finkatuko da.

Baldintza materialak

HGLGZk dagokion arautegian ezarritako baldintzak bete behar-ko ditu.

Baldintza fisikoak eta hornidura

- Sarbide integrala, traba arkitetnikorik gabea, erraza, garraio publikoan aise ailegatzeko moduan.
- Hura jartzeko aukeratzen den eremu geografikoa edo kokagunea; baliabideak eskualde-ka nola dauden banatuak hartuko du kontuan.
- HGLGZren eta lokal berean ematen diren beste zerbitzuen artean bereizketa egonen da, ahal bada arkitektonikoa eta, bestela, funtzionala.
- Diseinuak eta hornidurak ez dute galaraziko haurren orgatxo eta aulkiekin ibiltzea.
- Giro lasaian eta soinurik gabea (ez kanpoan, ez barrenean) emanen zaie tratamendua umei.
- Tratamenduen aretoek lurra beroa, irristagaitza eta garbitzen erraza izanen duzte.
- Zentroen diseinua, hornidura eta ekipamendua, segurtasun arloan, erabiltzaileei egokitu-ko zaie.
- Eraikina husteko eta suteen aurkako planak izan behar dituzte.

Eremuak eta espazioak

HGLGZ bakoitzak izan ditzake toki berezituak administrazio lanak, esku-hartzeak eta zerbitzu orokorrak aurrera eramateko, bere jarduera eremuaren eta ardurapeko populazioaren arabera.

Toki bakoitzean egon daitezkeenak ondoan ematen dira, orientabide gisa:

Administrazioa

Harrera, administrazio, zuzendaritza eta kudeaketa lanak egiteko lekuak izanen ditu.

Bertan izanen dira zuzendaritzaren bulegoa eta administrazio eremua, argiztapen eta aireztapen onak eta tresna egokiak administrazio lanerako.

Laguntza berezitua

Behar diren tokiak izanen ditu laguntza eta tratamendua emateko.

Aretoak eta bulegoak hauek izanen dira, gutxienez:

- Fisioterapia-errehabilitazio aretoa.
- Estimulazio eta psikomotrizitate aretoa.
- Logopedia aretoa
- Okupaziozko terapiarako aretoa.
- Bakarkako beste tratamendueta-rako aretoa.
- Teknikarien bulegoak.

Eremu hauek baterako zein besterako ere erabil daitezke, kalitatezko bakarkako laguntza bermatuz gero. Zein den erabiltzaileen kopurua eta eskabideena, hainbeste izanen da aretoena eta bulegoena.

Zerbitzu orokorrak, egokituak eta sarrera erraza dutenak: ataria, itxarongela eta komunak

HGLGZn ondoko hauetarako eremuak egonen dira:

- Bilkura gela.
- Ekipamenduak eta materialak utzi, gorde eta garbitzeko lekua.
- Haurrak garbitzeko eta jantzeko tokiak. Bertan ur beroa eta, behar izanez gero, bularra emateko tokiak izanen dira.
- Umeen kotxeak edo aulkitxoak uzteko lekua.

Teknologia eta oinarrizko tresnak

- Administrazio arloko ekipamendua, harrera, administrazio, zuzendaritza eta kudeaketarako eta, horretaz gain, hau: Informatikako ekipoa. Telefono-erantzungailu automatikoa.
- Emandako zerbitzu, ordutegi, hitzordu, haur eta abarrei buruz informazio orokorra eta profesionalen arteko komunikazioa erraztuko duten tresnak. Oinarrizko liburutegia. Bideoa. Erabiltzaileek behar duten informazioa aise eskuratzeko tresnak. Ebaluaziorako eta diagnostikorako material egokia. Estimulazioa-psikomotrizitatea-fisioterapia-errehabilitazioa:
 - Hurrei egokitutako mahaiak eta aulkiak
 - Koltxonetak
 - Ispiluak
 - Ohatilak
 - Arbelak
 - Zutik jartzekoak
 - Taka-takak
 - Trizikloak
 - Planoak
 - Bobath baloiak
 - Horma-barrak
 - Paraleloak

- Motrizitateko material berezia (pilotak, zilindroak, zakuak...)
 - Eskuz lantzeko materialak
 - Ezagutzaren garapenerako material bereziak
- Logopedia:
- Magnetofonoa eta zintak
 - Software elkarreragilea duen ordenagailua
 - Ohatila eta koltxoneta
 - Ispilua
 - Sentimen-urritasun zenbaite-tarako material bereziak.

Antolamendua eta funtzionamendua

HGLGZk, bere antolamenduan eta funtzionamenduan, dagokion arautegian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Ordutegia

HGLGZ goiz eta arratsaldean ari daiteke, eskualdeko erabiltzaileen arabera, urte guztian.

Goiz eta arratsaldean aritzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Eskolaurreko ikastetxeei tragarik ez jartzea.
- Lan egiten duten gurasoek zentzura joateko aukera izatea.
- Adin hauentzako egoki den ordutegia eskaintzea.

Beste esku-hartze batzuk

HGLGZk epe ertainean dituzten eginbeharrekoen artean ospitaleko eta familiako esku-hartzeak daude, adin horietan duten garrantziagatik.

Ospitaleko esku-hartzeak

Arriskua edo ezintasuna duten haurrek bi unetan behar dute laguntza, bereziki:

- Jaiotzean eta Jaioberrien Zainketa Intentsiboetako Unitatean sartzen dituztenean.
- Ospitaleko egonaldi luzeetan edo behin eta berriz errepikatzen direnean.

Plan bat eratuko da Neonatologiako Zerbitzuarekin batera, lanean hasteko haurrarekin eta familiarekin.

Etxeko Laguntza

Esperientzia batzuek etxeko laguntza ulertzen dute haurraren ingurune naturalean esku-hartze-ko modu bat bezala, ume txikiekin egiten dena (7-8 urte arte).

Tratamenduaren ikuspegitik, etxeko laguntzaren arrazoiak dira umea oso txikia dela eta ez dituela hartu jateko eta lo egiteko erritmoak. Horretaz gain, Laguntza Goiztiarreko programaren helburuak familiaren ohiko bizimoduan sartzen dira eta, gero eta gehiago, familia HGLGZra hurbiltzen da.

Nafarroan izan dira esperientzia batzuk, HGLGZra etorri ezin direnekin, dela urruti bizi direlako, dela familiaren egoera bereziengatik ezinezkoa zitzaienean Zentrora etortzea.

Laguntza Goiztiarreko programak eredu hori ere kontuan hartu behar du.

Beste jarduera osagarri batzuk

Prestakuntza eta ikerketa, azterketa eta gogoeta gisa, etengabe aldatzen eta eguneratzen ari den zerbitzuaren oinarri funtsezkoak dira.

Bi gauzak estu lotuak daude zerbitzuen hobekuntzarekin eta kalitatearekin.

Prestakuntza

Etengabeko prestakuntza nahitaezkoa da HGLGZan diharduten profesionalentzat, Laguntza Goiztiarreko zerbitzu onak nahi badira.

Profesionalen prestakuntzak diziplina bateko arlo akademikoa jorratu behar du, baita beste guztien kontzeptu ingurumaria ere.

Laguntza Goiztiarrean parte hartzen duten taldeentzako (profesionalak, familiak...) prestakuntza programa bat izanen da, urtero.

Plan horren bidez aukera emanen zaie profesionalei, ahal denean, haien lan eremuko gaietarako buruzko ikastaro, biltzar eta topaketetara joateko.

Lehentasuna emanen zaie lantaldeetako kideek aukeratutako gaien gaineko mintegiei, baldin Laguntza Goiztiarreko programaren dinamika hobetzeko badira.

Familien prestakuntzari dagokionez, “gurasoen autolaguntzako” taldeak bultzatuko dira, eta, horretarako, gaien arabera, ondoko hauen laguntza izanen da: guraso adituena, profesional espezializatua edo HGLGZko taldeetako profesionalena eta Laguntza Goiztiarrean diharduten entitateena. Bestalde, komunitateko jardueren berri emanen zaie.

Ikerketa

Ikerketa, zientzietako ezagupen berriak aurkitzeko jarduera gisa, prestakuntzari eta ekintzari lotzen zaie.

Laguntza Goiztiarrean behar da ikerketa, gero eta eraginkorragoak diren esku-hartze programak garatzeko.

Profesionalak dira hobekien egin dezaketenak, hurrekin eta familiekin etengabe ari baitira eta beharrak ongi baitakizkitez.

Xede horretarako, nahitaezkoa da administrazioak tresnak eta baliabideak paratzea unibertsitateekin eta Laguntza Goiztiarreko beste zerbitzuekin lankidetzan aritzeko.

Laguntza Goiztiarra lehentasunztat hartuko da ikerketa proiektuetarako laguntzen deialdietan.

Kalitatea

Kalitate planak, Laguntza Goiztiarreko programan, helburu hau du: Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentron ekintzetan eraginkortasuna eta kalitatea bermatuko duten jardunbide profesionalak eskaintzea, erabiltzaileen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzearen.

Zerbitzuen kalitatea eta ezintasuna duten edo izateko arriskuan dauden haurren bizi-kalitatea berezi ezinak dira gizarte politikean, errehabilitazio programetan eta ikerketan. Kalitatearen aldeko arrazoi nagusiak ondoko hauek dira:

- Laguntza Goiztiarreko zentron eta zerbitzuen kudeaketa arrazionalizatzea.
- Zentron iraupena ez da aski. Bikainak izatea bilatu behar da.
- Funtsezko xedea da zentroetako pertsonen beharrei erantzutea.
- Kalitatearen kulturak antolamendua errazten du.
- Baliabideak, kalitatearen kulturaren bidez, hobekien aprobetxatzen dira.

³ Iturria: Millá Romero, M.G.E. (2004). “La calidad de los servicios de Atención Temprana”. Psicología. Pirámide.


Laguntza Goiztiarrean kalitateak oinarri hauek izanen ditu:

- Hobetzeko estrategien definitzioa, HGLGZetako barrengo bezeroak (profesionalak) eta kanpokoak (haurrak eta familiak) ardatz harturik.
- Umeen eta familien beharrak eta nahiak aztertzea eta ulertzea.
- Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa egokia.
- Kalitatearen ebaluazioa, gogobetetasun-adierazleen eta emaitzen azterketaren bidez.

Emaitzak ondoko hauen arabera neurtuko dira:

- Norberaren gogobetetasuna.
- Bezeroen gogobetetasuna.
- Gizartean izandako eragina.
- HGLGZen emaitzak.

Laguntza Goiztiarreko Programaren kalitate proiektua, hiru urteko epean zein kontzeptu eremutatik bideratuko den soilik aipatu da.



Koordinazio
sistemak eta mailak

Koordinazioaren garrantzia eta beharra nahiko garbi gelditu dira Laguntza Goiztiarreko esku-hartze eredu honetan.

Koordinaziorako bi sistema eta bi maila ezarriko dira:

Diziplinen artekoak

Taldeen barneko bilerak

HGLGZetako profesionalek egingen dituzte.

Eskumenak: kasu berrien balorazioa, esku-hartzeen jarraipena, funtzionamenduko afera orokorrak, etab.

Bileren maiztasuna: gutxienez, astean behin.

Taldeen kanpoko bilerak

HGLGZetako profesionalek eta beste arlo batzuetakoek egingen dituzte: osasun, hezkuntza, gizarte baliabideetakoek edo zerbitzu osagarriak ematen dituzten entitateetakoek (ONCE, ASPACE, DOWN S., EUNATE, ANFAS...).

Eskumenak: kasuen azterketa, jarraipena, eta, behar bada, igorpena. Koordinatutako jarduera prozedurak aztertzea eta adostea.

Bileren maiztasuna: zehaztu gabe dago.

Erakundeen artekoak

Laguntza Goiztiarreko programa zuzentzeko Batzordea sortuko da, erakunde gisa jardungo duenal. Kide hauek izanen ditu:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailea, Batzordeko zuzendaria.
- Familiako zuzendari nagusia.
- Osasuneko zuzendari nagusia.
- Hezkuntzako zuzendari nagusia.

Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- Departamentuen aurrekontu eta/edo jardueretako neurrien azterketa.
- Haiengan eragina duten neurriak adostea.

Bileren maiztasuna: urtero bat.

“Laguntza Goiztiarrari buruzko Aholkularitzako Batzorde Teknikoa” eratuko da. Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko Departamentuetako arduradunek osatuko dute.

Kideak ondoko hauek izatea proposatu da:

- Menpekotasunen arloko Laguntzaren zuzendariordea, arduradun izanen dena.
- Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroko arduraduna.
- Osasun Departamentuko ordezkari bat.
- Adimen Osasuneko Zuzendariordezako ordezkari bat.
- Hezkuntza Departamentuko ordezkari bat.
- Familia Zuzendaritza Nagusiko ordezkari bat.
- Gizarte Zerbitzuetako ordezkari bat.
- Haurren Garapenerako eta Laguntza Goiztiarrerako Zentroetako edo Unitateetako ordezkari bat.
- CORMIN-eko ordezkari bat, Ezintasuna duten pertsonen plan integralaren jarraipen batzordea osatu arte.

Batzorde horren eskumenak hauek dira: eskumen banaketari eta jarduera koordinatuei buruzko akordioak hartzea, baita ekintzetan ezarritako programak onestea eta beste edozein zeregin ere.

Bileren maiztasuna: gutxienez, hiru hilabetetik behin.



Parte hartzeko
bideak

Parte hartzeko eredu irekia eta malgua bultzatu nahi da, erabiltzaileen iritzi eta eskakizunak bildu eta Laguntza Goiztiarreko programaren dinamikara eta egiturara eransteko gai izanen dena.

Horretarako, nahitaezkoa da parte-hartze tresnak arinak eta bideragarriak eskura izatea.

Kasuan kasu, ondoko hauek taxutuko dira:

Barne araubideko erregelamendua

Erregelamendu bat egingen da eta bertan, atal batean, erabiltzaileen, profesionalen eta zerbitzuaren beraren eskubideak eta betebeharrak ezarriko dira, indarra duen legeriaren arabera.

Parte hartzeko kontseiluak onetsiko du.

Erregelamendua publikoa izanen da eta haren berri, nahitaez, profesionaleri, kontratatu berriei eta programan sartzen diren erabiltzaileei emanen zaie.

Parte hartzeko kontseilua

Laguntza Goiztiarreko Zerbitzua-
ren funtzionamendua eta jardue-
rak ebaluatuko ditu eta ontzat
emandako ekarpenak eta iradoki-
zunak aurkeztu edo egingen ditu.

Parte hartzeko bi kontseilu era-
tzea ere azter daiteke, jende gehie-
na bizi den eskualdeetan hau da,
Iruñean eta Tuteran.

151

Parte hartzeko kontseiluan ondo-
ko hauek izanen dira:

- **Kontseiluburua:**
Laguntza Goiztiarreko progra-
maren koordinatzailea.
- **Mahaikideak:**
Balorazio taldeko medikuntza,
psikologia edo psikopedagogia
arlotako teknikari bat.
Eskualde bakoitzeko plantilla-
ko langileen ordezkari bat.
Eskualde bakoitzeko erabil-
tzaileen ordezkari bat, edo le-
gezko ordezkaria, beraiek au-
keratua eta beraien artekoa.
Nafarroako Gizarte Ongiza-
tearen Institutuko Menpeko-
tasunen arloko Laguntzaren
Zuzendariordetzako ordezkari
bat.
- **Idazkaria:** kontseilukideek au-
keratuko dute mahaikideen ar-
tean. Bi urterako aukeratuko
dute eta berriz ere hautatu de-
zakete.

Iradokizunen eta kexen posta-kutxa

HGLGZ bakoitzean posta-kutxa bat paratuko da, ongi ikusteko eta ailegatzeko moduan, familiek iradokizunak edo kexak adieraz ditzaten jasotzen duten zerbitzuaz.

Familiei horren berri emanen zaie HGLGZra ailegatzeko direnean.



Eranskinak

Parte hartzeko prozedura

Laguntza Goiztiarreko taldeek, 2003ko irailean, Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Atalari Laguntza Goiztiarrari buruzko proiektu bat aurkeztu zioten.

Proiektu horretatik hasirik, Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Ataleko buruak eta Elbarriak zaintzeko Zentroko zuzendariak Laguntza Goiztiarraren Abiapuntuko agiriaren lehen zirriborroa aurkeztu zioten Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari, 2003ko abenduan.

2004ko otsailean agiri hori eskutaratu zitzaion programako familiei, CORMINi eta Elbarriak zaintzeko Zentroko profesionali.

2004ko martxoaren hasieran familiek eta Laguntza Goiztiarreko taldeak eginiko iradokizun eta ekarpenak bildu ziren.

Martxoaren erdialdeko lan saio batean, CORMINen ekarpenak eztabaidatu ziren.

Horretaz gain, bilera batzuk egin dira Abiapuntuko Agirian aurreratzearen, eta horietan parte hartu dute: Menpekotasunen arloko Laguntzaren zuzendariordeak, Balorazio Ataleko buruak eta Laguntza Soziosanitarioen Ataleko buruak.

Zenbait autonomi erkidego bisitatu dira Laguntza Goiztiarrean zertan ari diren jakin eta materiala eta arautegia jasotzeko.

Dena bildu eta hainbat zirriborro egin ondoren, Laguntza Goiztiarreko 5. Agiriaren zirriborroa aurkeztu zitzaion, apirilean, arduradun batzuei:

- Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari
- Elbarriak zaintzeko Zentroko Laguntza Goiztiarreko taldeko profesionali
- CORMINi
- Adimen Osasunaren arloko Departamentu arteko Batzorde Aholku-emaileari

Maiatzaren erdialdera beraien ekarpenak bildu ziren. Bi aldeek aipatu zuten beta falta izan zitzaiela zirriborroa eztabaidatzeko. Lan prozedura ez atzeratzeko, parte-hartze zabalena lortzeko tresnak jarri ziren, jakinda, Agiri honen bidez, lankidetzari hasi nahi dela arduradun guztien artean eta berrikusi eta aldatuko dela urteroko, esperientziaren eta zerbitzuko beharren arabera.

2004ko maiatzean Laguntza Goiztiarreko Abiapuntuko behin betiko Agiria osatu zen.

2004ko ekainean, Jardunaldi Tekniko bat antolatu eta Agiriaren jendaurreko aurkezpena eginen da.

Etorkizuneko ekinbideak

Jarduera Plan bat egiteko abiapuntua da agiria. Aipatu plana mailaka garatuko da lau urtean, behin betiko ezarri arte (2004-2007).

Etorkizuneko ekinbideak ondoko hauek dira:

2004. urtea

- Laguntza Goiztiarra Nafarroan arautuko duen Foru Agindua egitea.
- Haurren Garapena eta Laguntza Goiztiarra Koordinatzeko Zentroaren eta HGLGZen sorrera.
- Unitateak edo HGLGZak egiaztatzeko arautegia erregulatzeko eta onestea.

2005. urtea

Parte hartzeko organoen sortzea

- Laguntza Goiztiarreko programaren zuzendaritza batzordea.
- Laguntza Goiztiarreko batzorde tekniko aholku-emailea.
- Parte hartzeko kontseilua.

2005-2007 urteak

- Protokolo hauek osatuko dira: garapeneko nahasteak dituzten haurrak atzeman eta igortzea, gaian ardura duten erakundeek adostu ondoren. Familia harrera. Zerbitzuen arteko koordinazioa.
- Garapeneko nahasteak dituzten haurrei buruzko datu base bateratua eratzea.
- Barne araubideko erregelamendua osatzea.
- Kalitate plana antolatzea eta abian jartzea.
- Urteko prestakuntza programak diseinatu eta garatzea.

Arautegia

Nazioarteko arauak

- Haurraren Eskubideen aldeko Deklarazioa, NBE-k 1959an aldarrikatua.
- (84) 3 Ebazpena, Europako Kontseiluko Ministroen Batzarrak onetsia.
- Haurraren Eskubideen aldeko Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsia eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsia.
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 1992ko irailaren 16koa, Adimen Urrikoei buruzkoa.
- Ezintasuna duten pertsonendako Aukera Berdintasunei buruzko Arau Finkoak, 1993ko abenduaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsiak.
- Salamancako Deklarazioa. Hezkuntzako Behar Bereziei buruzko Mundu Konferentzia: sarbidea eta kalitatea, 1994ko ekainaren 10ean.
- Ezintasuna duten pertsonen aukera berdintasunari buruzko Jardunbide Egokiaren Gida Europarra. Helios II. Europako Batzordea.

Estatuko arauak

- Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa.
- 13/1982 Legea, ezinduak gizartean txertatzeari buruzkoa.
- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa (LGS).
- 1/1990 Legea, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerakoa (LOGSE).
- 696/1995 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzako Hezkuntza antolatzeakoa.
- Adingabearen babes juridikorako 1/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa.
- Ezintasuna duten pertsonen aukera berdintasunari, ez baztertzeari eta sarbide orokorri buruzko 51/2003 Legea, abenduaren 2koa.
- 261/2003 Dekretua, urriaren 21ekoa, detekzio goiztiarreko zerbitzuak arautzen dituena.

Autonomi erkidegoetako Arauak

14/1983 Foru Legea, martxoaren 30ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

76/1993 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa (CRENA) sortzen duena, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpe.

1988ko irailaren 14ko Foru Agindua, Osasun kontseilariak emana, Elbarritasun Psikikoei Aurrea Hartzeko Programa ezartzen duena. Azaroaren 16ko 70/1998 Foru Agindua, Osasun kontseilariak emana, jaioberritan Hipoakusien atzemate Goiztiarrerako Programa ezartzen duena.

Otsailaren 10eko 13/2003 Foru Agindua, Osasun kontseilariak emana, Sortzetiko Metabolopatiak Garaiz atzemateko Programa berrantolatzen duena.

Arrisku-faktore biologikoak eta sozialak

Arrisku-faktore biologikoak

Arrisku neurologikoa duen jaioberria

- Bere adinerako P10etik behe-tiko pisua duen jaioberria, 1.500 gramotik behe-tikoa, edo 32 astetik behe-tiko jaioberria. Batzuen arabera, irizpide hau aldatu egin beharra dago, ospitaleetako esperientziak esaten digulako arrisku altua dutela 2.000 gramotik behe-tiko eta 35 astetik behe-tiko jaioberriek ere.
- APGAR indizea, 3tik behe-tikoa, jaio eta minutu batera, edo 7tik behe-tikoa, 5 minutura.
- 24 ordutik goiti arnasketa mekanikoa jarri zaion jaioberria.
- Odola aldatzea behar duen hiperbilirrubinemia.
- Jaioberriaroko konbultsioak.
- Jaioberriaroko sepsia, meningitisa eta entzefalitisa.
- Disfuntzio neurologiko iraunkorra (zazpi egunetik gora).
- Garuneko lesioa, ekografiaren bidez edo TAKen bidez diagnostikatua.
- Nerbio Sistema Zentralaren malformazioak.
- Neurometabolopatiak.
- Kromosomopatiak eta beste sindrome dismorfiko batzuk.

- Gogamenaren patologia edo fetuari kalte egiten ahal dion infekzioa edo drogamenpekotasuna duen amaren umea.
- Patologia neurologiko zehaztu gabea edo berritzen den patologia duen anaiaren jaioberria.
- Bikia izatea, besteak arrisku neurologikoa baldin badu.
- Pediatrak egoki jotzen duen guztietan.

Ikusmeneko arriskua duen jaioberria

- Arnasketa mekanikoa denbora luzean.
- Haurdunaldi labur-laburra izan duten jaioberriak (oso goiztiarrak).
- Hidrozefalia.
- Nerbio Sistema Zentraleko sortzetiko infekzioak.
- Burezurreko patologia, ekografiaren edo TAKen bidez ikusia.
- Malformazio sindromea, ikusmenean eragina duena.
- Nerbio Sistema Zentraleko jaio ondoko infekzioak.
- Itolarri luzea.

Entzunezko arriskua duen jaioberria

- Odola aldatzea behar duen hiperbilirrubinemia.
- Haurdunaldi labur-laburra izan duten jaioberriak (oso goiztiarrak).
- 1.500 gramotik beheitiko jaioberria.
- Nerbio Sistema Zentraleko sortzetiko infekzioak.
- Haurdunaldian, denbora-tarte luzean, aminoglukosidoak hartzea edo plasman haien kontzentrazio altua izatea.
- Malformazio sindromeak, entzumenean eragina dutenak.
- Familiar hipoakusia duten pertsonak egotea.
- Nerbio Sistema Zentraleko jaio ondoko infekzioak.
- Itolarri luzea.

Arrisku-faktore sozialak

Gizarte-familiako arriskua beti hartzen da kontuan, jaiotza inguruko heriotza-tasa akutuari eta epe luzekoari gehien eragiten dien arrisku-aldagaien artean baitago. Gizarte-familiako arriskuen irizpideak, jarraitu beharrekoak, ondoko hauek dira.

- Baliabide ekonomiko oso urriak.
- Nahi gabeko haurdunaldi traumatizantea.
- Familiako elkarbizitza gatazkatsua.
- AK baxuko gurasoak / Estimulaziorik eragiten ez duen ingurunea.
- Eritasun larriak / Exitusa.
- Alkoholismoa / Drogamenpekotasuna.
- Prostituzioa.
- Delitugintza /Espetxeratzea.
- Ama nerabeak.
- Tratu txarrak badirelako susmoa.
- Haur-etxeetan bizi diren umeak.
- Osasun kontrolak behin eta berriz betetzen ez dituzten familiak.

Nahasteak eta aldaketak garapenean

Nahastea mugimenduaren garapenean

Diagnostiko hau egiten da mugimenduan zerikusia duten nerbio bide, zentro edo zirkuituetan patologia badela uste badugu. Horietan sartzen dira garunperlesiaren, arantza zatibituaren, miopatiaren, etabarren era eta maila guztiak eta mugimenduaren zenbait disfuntzio txiki (mugimendu-atzerapena, hipotonia, zailtasunak mugimendu astunetan edo arinetan...).

Nahastea ezagutzaren garapenean

Sail honetan sartzen dira adimen ezgaitasun zenbait, adimen maila mugatuak eta ezagutza prozedurako hainbat disfuntzio berezi.

Nahastea zentzumenen garapenean

Sail honetan sartzen dira ikusmenaren edo entzumenaren maila batzuetako defizitak.

Nahastea hizkuntzaren garapenean

Sail honetan sartzen dira komunikatzeko eta hitz egiteko gaitasunen garapenean dauden zailtasunak, zein ulertzean, zein adieraztean edo artikulatzean.

Garapenaren nahaste orokorra

Sail honetan sartzen dira garapen psikologikoaren arlo batzuetan nahaste larriak dituztenak, aldi berean (autismoa eta autismoarekin eta psikosiarekin loturiko formak).

Nahastea jokabidean

Sail honetan sartzen dira jokabide desegokia edo aztoratzailea duten haurrak.

Nahastea emozioetan

Herstura, inhibizioa, umorearen sintoma eta nahasteak, etab. dituzten haurrak sartzen dira.

Nahasteak adierazpen somatikoaren garapenean

Sail honetan sartzen dira ahoan eta elikaduran, arnasan, lo-esna zikloan, esfinterren kontrolean, eta abarreak patologia funtzionalak dituzten haurrak.

Bibliografía

- VERDUGO, M.A. y otros (1997):
“Retraso Mental, Definición, Clasificación y Sistemas de Apoyo” Aldaya
- CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y ESTUDIOS, FEAPS (2000).
"Atención Temprana: Orientaciones para la calidad. Manuales de Buenas Prácticas". SIS
- DENIS, R.E. y otros (1994):
“La calidad de vida como contexto para la planificación y evaluación de servicios para personas con discapacidad” Siglo Cero.
- PALACIOS, J. y otros (1986):
“Psicología Evolutiva 2. Desarrollo Cognitivo y Social del niño”. Alianza Psicología.
- AGENCIA EUROPEA PARA EL DESARROLLO DE LA EDUCACIÓN ESPECIAL (1999): “Intervención Temprana en Europa. Tendencia en 17 países europeos”. Antegraf.
- NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA (2003):
“I Congreso de Educación y Personas con Discapacidad”. Graphycems.
- NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA BEREZIKO BALIABIDE ZENTROA “Alumnado con grave discapacidad psíquica en Educación Infantil y Primaria”. “Orientaciones para la respuesta educativa”. Ona, Industrias Gráfica.
- PÉREZ LÓPEZ, J. y otros (2004):
“Manual de Atención Temprana”: Psicología Piramide.

- Libro Blanco de Atención Temprana; Grupo de Atención Temprana. Arg.: Real Patronato de Prevención y de Atención a Personas con minusvalía año 2000.
- Propuesta para la calidad de los servicios de Atención Temprana. Estado actual. María Milla Romero. Madril 1999.
- EQUIPO DE ATENCIÓN TEMPRANA DEL CENTRO BASE DE MINUSVÁLIDOS (2003). "Atención Temprana en el Centro de Valoración, Diagnóstico y Orientación de Navarra".
- GRUPO DE TRABAJO INTERSTITUCIONAL SOBRE ATENCIÓN TEMPRANA (PADI taldea) (1996). "Documento de Criterios de Calidad en Centros de Atención Temprana".
- GRUPO INTERSTITUCIONAL SOBRE ATENCIÓN TEMPRANA (PADI) (1995). "Documento sobre Atención Temprana".
- PROGRAMA HELIOS II. INFORME DEL GRUPO TEMÁTICO 1 (1996). "Atención Temprana".
- REGIÓN DE MURCIA (2003). "Atención Temprana".
- BORDON ALDIZKARIA, 54. ZK. (2002) "Atención Temprana: elementos para el desarrollo de un modelo integral de intervención" García Sánchez, F.A.
- GOBIERNO DEL PRINCIPADO DE ASTURIAS "La Atención Infantil Temprana en Asturias" 2004.
- GOBIERNO DE CANTABRIA "Plan de Atención Temprana 2003-2006" (2003).
- DIPUTACIÓN DE BARCELONA "Libro Blanco de la Atención Precoz" (2001).
- GENUSI "La Atención Temprana en la Comunidad de Madrid" (1999).
- COMUNIDAD DE MURCIA "Comisión Regional de Atención Temprana".
- GENERALITAT DE CATALUNYA. Área de servicios: Centros de desarrollo infantil y atención precoz. Indicadores de evaluación de calidad (2001).
- REVISTA DE LA ASOCIACIÓN CATALANA DE ATENCIÓN PRECOZ. 19-20 zk. (2002ko abendua).
- GENERALITAT DE CATALUNYA. "LA ATENCIÓN PRECOZ EN CATALUÑA: SERVICIOS Y CALIDAD".
- DIARIO OFICIAL DE LA GENERALITAT DE CATALUNYA. 2003/11/04koa, 4002 zk. 261/2003 Dekretua, urriaren 21ekoa, Laguntza Goiztiarreko zerbitzuak arautzen dituena.
- BOLETÍN OFICIAL DE ARAGÓN. 2003/02/05ekoa, 14. zk. 2003ko urtarrilaren 20ko Agindua, Aragoiko Autonomi Erkidegoan Laguntza Goiztiarreko Programa arautzen duena.
- DIARIO OFICIAL DE LA GENERALITAT VALENCIANA. 2001/10/15ekoa, 4106. zk. 2001eko irailaren 21eko Agindua, estimulazio goiztiarreko funtzionamendurako baldintzak eta eskakizunak arautzen dituena.
- BOLETÍN OFICIAL DE LA COMUNIDAD DE MADRID. 2001/05/18koa, 117. zk. 64/2001 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, arazo sozialak dituzten haur eta nerabeen laguntzarako Kontseiluaren Erregelamendua onesten duena.
- BOLETÍN OFICIAL DE LA COMUNIDAD DE MADRID. 2003/08/07koa, 186. zk. 180/2003 Dekretua, uztailaren 24koa, Madrilgo Erkidegoko haur eta nerabeen laguntzarako Barruti Kontseiluen Erregelamendua onesten duena.

